

Pragmatika, berbaldiaren analisi eta hizkuntzen irakaskuntza¹

Francisco Jose Ruiz de Mendoza

Sarrera Hizkuntza arrotzen irakaskuntzak aldaketa asko ezagutu ditu, pentsakera linguistikoaren martxarekin batean doazenak. Horrela, automatismoak ikastea ardatz zuten irakasmetodo estrukturalistetatik, generatibismoan oinarritutakoetan barrena (ikasleak hizkuntz arauak eta "gaitasun linguistikoa" lortzeaz kezkatutakoak dira hauek), metodologia komunikatibo berriagoetara iritsiak gara. Azken hauen iritziz, garrantzizkoa zera da: bigarren hizkuntza bat ikastea gramatikako arau batzuk ikastea baino gehiago dela. Forma gramatikal bat bera funtzio askotarako balia daiteke. Esaterako, espainolean eta ingelesean agintekera ez da aginduak emateko bakarrik erabiltzen². Alderantziz, funtzio bat egitura arras desberdinen bidetik gauza daiteke³.

Hizkuntz teoriarik berriak gertatu diren eboluzioetako bat "Testuaren Hizkuntzalaritza" edo "Berbaldiaren Analisi" deritzona da⁴. Hizkuntzalaritza-modu honen hasierako kezka perpausa baino goragoko unitateak aztertzea zen, hala nola parrafoa edo elkarrizketa, agian aurreko hizkuntzalaritza perpausaz bakarrik arduratu zelako. Baina hizkuntzalaritza honetan ere ikuspegia aldatzen joan da eta berbaldia produktu jotzetik (adib., testua) testuak ekoizten dituen prozesutzat hartzerara jo du⁵. Ikuspegi honetatik, edozein hizkuntz espresio, duen konplexutasuna dena dela, testu da.

Berbaldia era honetan ikusteak ez du hizkuntza arrotzen irakaskuntzan aurreko ikuspegiek eman izan dutenen pareko lan metodologikorik sortu⁶, seguraski gai honi eman izan zaizkion tratamenduen multzoa eredu bakar batean sartuko duen sistema bat lantzeko ahaleginik egin ez delako.

Gure helburua, artikulua honetan, aipatutako arazoaren haritik, eredu diskurtsibo integratzaile berri bat eskaintzea izango da, ikertzaileari arazo metodologikoei buruzko eztabaida serio bati hasiera emateko aukera eman diezaiokeena.

Berbaldia, egoera eta munduaren ezagutza

Berbaldia hainbat partaidek esan nahi dutena negoziatzeko burutzen duten prozesua dela esanez hasiko gara. Ideia honek ilun samarra eman dezake lehen begiratu batean; baina zehatz-mehatz aztertzen bada, asko errazten du hizkuntzaren bidezko komunikazioa zertan den ulertzeko lana.

Egin dezagun perpausa zingle bat: "Gela hau hotza dago".

Bere testuingurutik bakartuta begiratzen badiogu, ezin jakin dugu benetan zer esan nahi duen, nahiz eta hitz bakoitzaren esanahia garbi ulertzen dugun eta beste mila perpausetan sarri erabili izan dugun. Gauza batzuen egoerari buruzko baieztapen bat besterik ez du egiten. Baina zergatik esan da esaldi hori?, zer esan nahi zuen benetan hori jaulki zuenak? Esaldia beti dator, zorionez, antza denez esanahia ematen dion egoera jakin bati lotua. Hiru testuinguru desberdin irudika ditzagun:

- a. Bi ikertzaile esperimentu bat egiten ari dira laborategian eta tenperatura beroa behar dute. Batek dio "Gela hau hotza dago".
- b. Bi ikertzaile esperimentu bat egiten ari dira laborategian eta tenperatura hotza behar dute. Batek dio "Gela hau hotza dago".
- c. Gizon bat bere egongelan dago eta morroiari deitzen dio hotzak dagoelako: "Gela hau hotza dago" dio ugazabak.

Begien bistakoa da egoera bakoitzeko testuinguruak esaldi horren esanahia aldatu eta berrinterpretatzera behartzen gaituela. Muntarik handieneko gertaera da hori berbaldiaren prozesuan. Baina zeri esker gara gauza berrinterpretazio hori egiteko?: **a.** eta **b.** testuinguruek gauzen egoerari buruzko baieztapena esperimentuaren helburua lortzeko behar diren baldintzekin loterazten digute. Tenperatura hotza behar baldin bada, gela hotza dagoela esateak nahi zen tenperatura lortu dela adierazi nahiko du seguraski. Baina, tenperatura beroa behar baldin bada, oraindik ere esperimentua burutzeko behar den egoera ez dela lortu esan nahi da. Hitzetaratu ditugun gogoeta hauek ia prozesu automatikoz gertatzen dira hizkuntza horretako berezko hiztunarengan. Hizkuntza bateko hiztun garenez, errealitatea kontzeptu bihurtzera jarriak gaude eta errealitate hori deskribatzen duten esapideekin lotzera ohituak. Hala, **a.** eta **b.** testuingurutan esperimentu, laborategi eta ikertzaileen munduari buruz lehendik genituen ezagutzetako batzuk jarri behar izan ditugu martxan.

Azter dezagun orain **c.** testuingurua. Gela hotz dagoela diotsa ugazabak morroiari. Nola erantzungo du, gure ustez, morroiak? Kalefazioa piztuz seguraski, edo zabalik dagoen leihoren bat itxiz, hau da, nagusiari neke damaiona zuzenduz. Zergatik? Hori delako normala, nagusi-morroiaren arteko harremanak horrelaxe ikusten ohituta gaudelako. Kalefazio, egongela, leihoei buruz ditugun ezagutzei nagusi-morroiaren artekoena gehitu beharko diogu, **c.** testuinguruan, "Gela hau hotza dago" interpretatzeko. Gauzen ezagutza honek nagusiak morroiari esandakoa zeharragindu gisa (hots, ez gramatikako agintekeraren bitartez) ulertzeko bidea eman digu. Irudika dezagun beste testuinguru bat: nagusi-morroiak elkarrekin daude, zabalik dagoen leiho batetik hotza sartzen da eta morroiak nagusiari esaten dio "Hotz dago hemen". Nekez ulertuko genuke horrekin morroiak nagusiari ezer agindu dionik; izan ere, gure kulturen morroiak ez bait dio nagusiari agintzen.

Eginberri dugun axaleko analisi horretatik ondorio dezakegu aurrez ezarritako parametro batzuen bitartez ulertzen dugula hizkuntz

adierazpenaren (testua) eta egoeraren arteko lotura. Baina hori ez da hain simplea. Gure kontzeptuen parametroak munduaz dugun esperientziaren ekoizpen dira eta nolako kulturen gauden halakoa izango da neurri handi batean horien ordenamendua, hau da, mundua irudikatzeko gure moldeak beste askorenarekin bat dator, edo behar ditu izan gutxienez kointzidentzi ildo batzuk, bestela nekez mami bait daiteke komunikaziorik.

Hizkuntzaren analisi funtzionalak emango digu parametro horiek zeintzuk diren aurkitzeko modua. Hizkuntzalaritza funtzionalak (M.A.K. Halliday da horietako bat⁷) hizkuntzaren bitartez esanahiaren maila desberdinak nola adieraz daitezkeen ikertzen du. Hiru maila bereizten ditu Halliday-k: *ideatiboa*, ideiak edo eduki proposizionalak adierazten ditu hizkuntzak; *pertsonartekoa*, giza harremanak arautzekoa; *testuala*, beren barnean ondo josita dauden eta egoerari dagozkion testuak eraikitzen ditu hizkuntzak. Bidezkoa dirudi pentsatzeak, hizkuntza funtzio hauek eta beste batzuk⁸ betetzeko gauza baldin bada, hiztunak hizkuntzari funtzio hori eranstean diolako izango dela; are gehiago, hiztunak hizkuntza hori funtzionalki erabiltzen dakielako. Arrazoibide honek funtzio-maila bakoitzak agian hiztunaren adimenaren ezagutzak antolatzeko modu berezi bat izango duela pentsatzera garamatza. Hau da, Halliday-k proposatutako funtzio-sistema zuzena baldin bada, hiztunak badaki hizkuntzaren bidez edukiak nola igorri (ideia-maila), giza harremanak nola arautu (pertsonarteko-maila) eta testuak nola eraiki (testu-maila).

Gela hotzaren adibidean, laborategi, ikertzaile eta abarri buruz martxan jartzen ditugun ezagutzak ezagutza ideatiboak lirake. Giza harremanei buruzkoak (nagusi-morroien artekoak) pertsonartekoak. Esaldiek beren barnean eta elkarrekiko loturan moldatutako sistema, berriz, ezagutza testuala.

Ez dago asko pentsatu beharrik ezagutza-moten ikuspegia deskribapen honekin amaitzen ez dela ohartzeko eta agian, azaldu den eran, nahasgarri ere izan daitekeela. Halliday-ren hizkuntz funtzioak "makro-funtzioak" dira eta, beraz, ezagupenaren kategoria oso orokorrak besterik ez. Bestalde, ez da zilegi maila berean jartzea objektuei (konkretu zein abstraktuak), berauen harteko loturei eta giza harremanei buruz ditugun ezagutzak (estatikoak) eta ezagutza operatibo eta dinamikoak: nola eragin besteen jokabideetan (nola parte hartu gizarteko elkarreraginean hizkuntzaren bidez) eta nola moldatu kanpotik testuak hainbat efektu estetiko, argitasun-edo anbiguitate-maila desberdinak eta abar lortzeko.

Ezagutza estatikoak eta ezagutza operatiboak bereizteak lehentxeago egin dugun hiru motatako kategorien sailkapena apurtxo bat gehiago zorrozteko aukera ematen digu. Ezagupenaren zientzien alorrean oso erabilia den bereizketa tradizioaletik hurbilago dago: *deklaraziozko* eta *prozedurazko* ezagutzak⁹. Deklaraziozko ezagutzak munduaren izateko moduari buruzko baieztapenak dira. Prozedurazkoek, berriz, ezagupen-ekintzak nola burutu adieraziko digute: hizkuntzaren ulerkuntza eta ekoizpena, besteak beste. Beraz, erraz bereiz ditzakegu, teoria semantiko-linguistikoko baterako, deklaraziozko bi ezagutza-mota handi: ideatiboa (objektuei eta berauen

arteko erlazioei buruzkoa) eta pertsonartekoa (giza harremanei buruzkoa); eta prozedurazko bi ezagutza-mota handi: pertsonartekoa (nola eragin besteren jokaeran) eta testuala (nola eman geure mezuei kohesioa eta koherentzia).

Prozedurazko ezagutzak eta printzipio pragmatikoak

Aipatutako bi prozedurazko ezagutza-mota horiek Leech-ek (1983) erretorikako bi modu direla esandakoarekin lotura estua dute. Erretorika horiek pertsonartekoa bata eta erretorika testuala bestea dira eta pragmatikatik sortutako printzipio-multzok batek araututa dauzka¹⁰. Pertsonarteko erretorikari dagozkion printzipioetakoak dira Grice-ren (1975) lankidetzaren printzipio famatua eta kortesiaren printzipioa¹¹.

Printzipio bakoitzak bere aginduak ditu. Hona, esate baterako, lankidetzakoarenak:

- *Zenbatekoa*: ahal den hainbat informazio eman, baina ez behar den baino gehiago.
- *Nolakoa*: ez esan gezurrezkorik ezer edo esateko behar hainbat froga ez duzunik.
- *Elkarlotura*: gauza pertinenteak esan.
- *Modua*: kontzeptuen anbiguitate eta iluntasunari ihes egin.

Agindu hauek zera adierazten dute: kontrakorik ageri ez den bitartean, hiztunak pentsatuko duela solaskideak, ekintza komunikatiboan esku hartu nahi badu, informazio nahikoa, egiazkoa, argia eta pertinentea emango diola. Agindu horietakoren bat betetzen ez bada, solaskideak ondorioztatu beharreko helbururen batekin egin dela uste izango da. Adibidez, nik egin dezaket gertaeraren bati buruz behar hainbat informazio ez eman inori minik eman nahi ez diodalako edo zuzeneko salaketak ekiditeko:

(1) **A** Nork hautsi du leihoa?

B Pedrok.

(2) **A** Nork hautsi du leihoa?

B Pedro ibili da arestian hemen.

Pentsa dezagun **Bk** ikusi duela Pedro leihoa puskatzen. **Bren** bi erantzunak elkarrekin konparatzen baditugu, ohartuko gara (2)n ez dela Pedro zuzenean salatu nahi eta hori **Aren** esku uzten dela. **Bk**, arrazoren batengatik (agian ez du salatari-famarik nahi), ez du eskura daukan informazio guztia ematen. Baina **Ak**, beste frogarik ez duen bitartean, **Bk** egia osoa esaten diola asumitzen duenez gero, **B** Arekiko duen egitekoa betetzen ari da. Dena den, **Ak** aurkituko balu **Bk** dakien guztia ez diola esan, honek beti esan dezake ez duela zertan inor salatzen (gero ikusiko dugun kortesiaren printzipioaren agindu bat, tentuarena), eta, nolanahi ere nahikoa zantzu eman diola.

Elkarriketako zenbait joera bistaratzen duten zenbait aginduk arautzen dute kortesiaren printzipioa: tentuz ibiltzea, eskuzabala izatea, apala, desadostasuna baino areago adostasuna azaltzea, besteak laudatzea, etabar¹².

Esaterako, apaltasunaren aurkakoa litzateke norberaren burua honela goestea:

A Oso polita zaude.

B Bai horixe.


Baina aldi berean **B**ren apaltasunik gabeko erantzunak adostasunaren agindua betetzen du. Egin dezagun, ordea, **B** ezagutzen dugunez, badakigula bere edertasunari buruz oso iritzi apala duela. Egoera horretan **B**ren erantzuna ironikoa da eta pertsonarteko erretorikako ironiaren printzipioa betetzen da. Printzipio pragmatikoak, beraz, begien bistakoa denez, munduaren ezagutza eta momentuko egoerarekin bat datozenen bakarrik dira operatiboak.

Erretorika testualari buruz iruzkinen bat egitea besterik ez zaigu falta. Leech-ek Slobin-ekin (1975) batera, lau printzipio testual bereizten ditu: *argitasunarena*, mezuaren gardentasunari lotua (kontzeptuzko edukiaren eta espresio formalaren arteko erlazioa)¹³; *prozesagarritasunarena*, mezuaren zatiak egoki antolatuak egotearekin du zerikusia; *ekonomiarena*, mezua kodetu eta deskodetzeko behar diren denbora eta ahaleginaren neurria; *adierazgarritasunarena*, adierazpenaren eraginkortasunarekin lotua. Adibidez, perpausa txertatu eta subordinatu gehiegi dituen testua (eta hau espainieraz mugarik gabe luza daiteke) ulerkaitza gerta daiteke eta argitasun, prozesagarritasun eta ekonomiaren printzipioen aurka egon. Erreduantiaz jositako testuak ere ez ditu printzipio hauek beteko, baina, estetikaren aginduz egiten bada, agian adierazkortasunaren printzipioa betetzen arituko da aldi berean¹⁴. Beste zenbaitetan, ekonomia gehiegizkoak nahi gabeko esaldi nahasgarritara¹⁵ eraman dezake.

Berbaldiaren osagaiak

Orain arte esandakoetan oin harturik, azaldu ditugun berbaldiko osagaien arteko elkarlotura posibleen ikuspegi orokorra emanez bukatuko dugu lan hau¹⁶. Honako diagrama honetan oinarri gaitezke: .1

.1
Berbaldiko osagaien arteko
elkarlotura



Esan dugunez, berbaldia prosezua bat da non partaideek diotenaren esanahia negoziatzen duten. Gauzak ulertzeko modua oso baliagarria da semantika baten lanketan. Izan ere, partaideek, hasieran elkarri edozein neurritan ulertu ezin badiote ere, beti izango dute (saiatuz behintzat) adostasun-maila batera iristeko modua, agian beren mundu kontzeptuala ere aldatuz.

Lehen, adierazpenezko bi ezagutza-mota bereizi ditugu: ideatiboa eta pertsonartekoa. ¹diagraman *eskema* edo ezagupen eskematiko gisa aitatu ditugu. Ezagutzen antolaketari buruzko teoria informatiko eta psikologikoen eremutik dator terminologia hori, eta oso egokia da pentsatzen badugu munduari buruzko datuak ez ditugula normalean bakartuta jasotzen buruan, baizik eta beste datu batzuekin lotuta. Eskema komunikazioan erabiliko den ezagutza ideatibo edo pertsonartekoaren unitate bat da. Errealitateari buruzko datuen antolakuntzak edozein datu berriren interpretazioan izango du eragina. Horrela, seguraski beti izango dugu edozein egoera lehendik ditugun ezagutza-eskemen arabera analizatzeko joera; hots, horiekin bat datozen ala ez. Pentsa dezagun zeinen desegokia eta arraroa izango litzatekeen gure ezagutza deklaratioben sistemarentzat jendea etxetik tximinitik sartu edo irtengo litzatekeeneko egoera edota morroiek nagusiei aginduko lietenekoa.

Horrela, beraz, egoerako datuak eta testuaren informazioa biak analizatzen ditugu, geure ezagutzen sistemarekin konparatuz analizatu ere. Bestalde, prozedurazko ezagutzak hizkuntza erabiltzeko moduan du eragina. Prozedurazko ezagutzen erabilgarritasunak eskema, egoera eta testuen gakoak bat etortzean du funtsa. Prozedura pragmatikoaren bidezko bat egite horren ondorioa uste berrien testuingurua edo testuinguru eskematiko berria da, behin-behinerako edo luzerako gure eskemen multzoan txertatuko dena. Aldi berean, testuinguru eskematiko hori berbaldiko negoziazioaren emaitzen irudikapen bezala ere uler daiteke. Egintza komunikatiboan testuak esanahi negoziatua du.

Konklusioa

Bigarren hizkuntzen metodologiaren helburuei norabide berriak emateko, beharrezkoa da egintza diskurtsiboaren deskribapen orokor berri bat. Orain arte ez dira asko berbaldia teoria bateratu batean oinarrituta irakasteko egin diren ahalegin serioak. Gehienez ere han-hemenka zabaldua zeuden intuizio batzuk bildu dira, baina ezin dute oraindik irakaskuntzari aplikatzeko moduko metodologia finkorik ekoiztu. Esanahi negoziatuaren fenomeno bereziari sakonagotik heldu beharko zaio aipatutako metodologia landu aurretik.

Berbaldia testuaren (edozein delarik) esanahia eraikitze prozesua baldin bada, hizkuntzaren bitartezko adierazpenaren fenomeno bera ulertzeko, funtsezkoa da prozesu hori zein elementuk osatzen duten eta nolako elkarloturan osatzen duten jakitea. Eta haxe da hortik hizkuntza arrotzak irakasteari buruz atera beharreko ondorio bat: irakaskuntzaren helburua ez dela ikasleak zuzentasun gramatikala lortzea bakarrik, ezta testuinguru desberdinetan esaldiek bete behar dituzten funtzioak bakarrik irakastea ere. Berbaldiaren fenomeno askoz ere zabalagoa da. Aldagai asko daude hor

tartean eta horrek pentsarazten digu ez direla gramatika eta analisi funtzionalak ikaskuntzaren helburu bezala hartu behar, baizik eta beste faktore guztiekin batera esanahia adierazteko tresna gisa.

Colegio Universitario de la Rioja

Itzultzailea: Boni Urkizu

Oharrak

- 1 Artikulu hau sarbide bat besterik ez da. Alabaina, bertan azaltzen diren ideiak egilearen gogoetak dira beste idazle batzuen lanen laburbilduma baino areago.
- 2 Horrela *Pruébese ese vestido* iradokizuna da; *No entre ahí*, oharra; eta *Compra acciones ahora*, aholkua. Euskarari buruz ere gauza bera esan daiteke (itzultzailearen oharra).
- 3 Gaztelaniaz eta ingelesez honako esaldiok aginduak emateko balio dute: *Termináte ese bocadillo*, *Mejor te terminas ese bocadillo*. *Tienes que terminar te el bocadillo*, *¿Por qué no terminas ya el bocadillo?*
- 4 Testuaren hizkuntzalaritzari buruzko sarrera ona nahi izatera, ikus Beaugrande eta Dressler (1981).
- 5 Hizkuntzalaritza aplikatuak (Widdowson 1984, 1990 eta Cook 1989, eta abar) zabaldu du berbaldia ulertzeko era hau eta etnometodologisten lanetan du oinarri – elkarriketarako elkarrekintzetan parte hartzeko jendeak baliatzen duen moldea aztertzen duen soziologo-taldea.
- 6 Orain arte eskaini den guztia gogoeta eta intuizio solteak besterik ez da izan. Ez dute tajuz jositako metodologia ondo landurik mamitu.
- 7 Ikus, adibidez, Halliday (1973).
- 8 Proposamen funtzional asko daude: Bühler, Jakobson, Hymes, eta Popper-enak, esaterako. Horietako zenbait laburbildurik Yalden-enean (1983).
- 9 Ikus Rumelhart eta Norman (1985).
- 10 Normalean "pragmatika" esatean komunikazioko hizkuntzaren azterketa ulertzen da, hizkuntz espresioen eta hauen testuinguruekiko elkarloturari erreferentzia berezia eginez. "Semantikak", berriz, esanahia testuinguruz kanpo eta erabiltzailea aintzat hartu gabe aztertzen du. Ikus Levinson (1983).
- 11 Badira beste batzuk ere; hala nola, ironiarena, interesarena, etab. Ikus horiek denak laburtuta Leech-enean (1983:149).
- 12 Kultura bakoitzak bere agindu-moduak ditu.
- 13 Ez nahastu lankidetzako printzipioaren ahalik eta argitasunik handienarenarekin. Hau kontzeptuei dagokie (ideien argitasuna), argitasunaren printzipioa testuari dagokion bitartean.
- 14 Esate baterako, "Hau zure semeak egin du eta zure semeak ordaindu beharko ditu kalteak" beste forma honekin erkatuz "Hau zure semeak egin du eta berak ordaindu beharko ditu kalteak", bigarren hau ez da hain adierazkorra.
- 15 Esaterako, ingelesezko egunkari batean azaldutako iragarkia: "Wanted-edible oil technologist". "Edible" izenlaguna bai "oil"-i, bai "technologist"-i aplika dakioke (eta horrek txiste edo horrelako bat sortzen du).
- 16 Kontuan har beza irakurleak ñabardura asko kendu dela laburtasun eta azalpen argiaren mesedetan.

Bibliografia

- Aitkenhead, A. M. & Slack, J. M. (edk.). 1985. *Issues in Cognitive Modeling*. Hillsdale, NJ.: Lawrence Erlbaum Associates.
- Beaugrande, R. de & Dressler, W. 1981. *Introduction to Text Linguistics*. London: Longman.
- Cole, P. & Morgan, J. L. (edk.). 1975. *Syntax and Semantics, 3. Speech Acts*. New York & London: Academic Press.
- Cook, G. 1989. *Discourse*. Oxford: Oxford University Press.
- Grice, H. P. 1975. "Logic and conversation", in Cole & Morgan, 1975: 41-48.

- Halliday, M. A. K.** 1973. *Explorations in the Functions of Language*. London: Edward Arnold.
- Leech, G.** 1983. *The Principles of Pragmatics*. London: Longman.
- Levinson, S.** 1983. *Pragmatics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Rumelhart, D. E. & Norman, D. A.** 1985. "Representation of knowledge", in Aitkenhead & Slack, 1985.
- Slobin, D. I.** 1975. "The more it changes ... on understanding language by watching it move through time". *Papers and Reports on Child Language Development*, University of California, Berkeley, Sept. 1975, 1-30.
- Widdowson, H. G.** 1984. *Explorations in Applied Linguistics 2*. Oxford: Oxford University Press.
- Widdowson, H. G.** 1990. *Aspects of Language Teaching*. Oxford: Oxford University Press.
- Yalden, J.** 1983. *The Communicative Syllabus: Evolution, Design & Implementation*. Oxford: Pergamon.